



## LEKUALDATZE-LEHIAKETA

Egunean zehar argitaratuko dituzte onartutakoen, merezimenduen baremoa eta kanpoan utzitakoen behin betiko zerrendak (kanpoan uzteko arrazoia adieraziz) ,bai maisu-maistren kidegoan bai irakaskuntza ertainetan.

Gaur ere ikuskatzaileen lekualdatze-lehiaketan onartutakoen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

## 26/27 IKASTURTERAKO BIRBAREMAZIOA

Behin betiko zerrendak argitaratuta daude [Hezigunean](#).

Gora jotzeko errekurtsua jartzeko epea apirilaren 15etik maiatzaren 14ra arte luzatuko da.

Aurten izangai bakoitzak bere erreklamazioaren emaitza eta dagokion arrazoiketa kontsultatu ahal izango ditu, Hezigunean gaitu duten atal honetan: "Behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioaren emaitza kontsultatzea".

Informazio guztia [hezkuntzaren webgunean ikusgai](#) dago.

## 10T- ERRENTA AITORPENA

Arazo tekniko batzuk direla eta, martxoaren 30a baino lehen ateratako 10T dokumentuetan akatsak egon daitezke. Beraz, egun hori baino lehen atera bada, EIZUtik berriro deskargatzea gomendatzen dau akatsak ekiditeko

## ADINAGATIKO IRAKASTORDUEN MURRIZKETA ESKATZEA

Gogoratu eskaera EIZUn dagoela erabilgarri eta ez dela Tramitagune bidez egin behar.

**LAN-AKORDIOAREN URRAKETARIK EZ!**



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eus